

# Ezkerra ez da gai etorkizuna amesteko



SONIA GONZÁLEZ  
IDAZLEA ETA ABAR



ANTTON OLARIAGA

**H**auteskunde batzuk pasatu berri dira. Beste batzuetan gaude bete-betean. Hau idazten ari naizela, oraidik ez dakigu zer gertatuko den, aurrekoek islatzen zuten eskumaren igorak Espainiako Gobernuko giltza eman edo eskuratzeko zorian geldituko ote diren. Bigarrena gertatuta ere, eztabaiaezina da mundu mailako joera betean sartuta dagoela estatua.

Sasoi berri bat da. Bizitzen ari garen faktore anitzeko krisiak neoliberalismo globalaren amaiera iragartzen du. Eta apurka eta etengabeaz zabaltzen ari den eskuma berria lema hartzeko eta aldaketa bideratzeko prest azaldu da. Ez dirudi, zoritxarrez, beldurra baino printzipio hobearagorik dagoenik kontra egiteko.

Komunikabideen esku-hartzea, sare sozialen zeregina, *fake news* eta beste-lakoak, gerizpetan diren Bannon moduko ideologoak... azalpenak mila izan daitezke, baina horrek ez dio funtsezko galderari erantzunik ematen: zergatik ezkerra ez da kapaz atsekabe soziala bideratzeko?

Ezkerra ez da gai etorkizuna amesteko, ilusioa piztuko duen proiektu bat irudikatzen, hein handi batean etorkizuna bera kolokan dagoelako. Konturatu garenez, gaur gaurkoz, errazagoa

da munduaren amaieran pentsatzea, kapitalismoaren amaiera imajinatzea baino. Bestelako mundu bat posible dela sinistu eta aldarrikatzen genuen, baina distopiak utopia jan du.

Ezintasun horrek badagoena salbartzera eraman du ezkerra desesperatuki. Pasa den mendean langileak bestelako formulazio askatzaile batzuetatik aldentzeko sortutako tresna, Ongizate Estatua, alegia, defendatzea omen da aukera posible bakarra. Hobe sistema hau gorde, nahiz eta ahulduta, etortzeko den balizko munstroaren mehatxuaren aurrean. Horrela, azken hamarkadak alternantziaren sasoi izan dira. Baina alternantzia ez da alternatiba, eta botere politiko-instituzionalak, bere hutsen, txaplatak jartzeko parada baino ez du ematen. Akaso nolabaiteko ordenari eusteko baliagarria izan zen noiz-bait, baina badirudi sistemari berari ere iraungitze-data helduko zaiola berandu baino lehen.

Alternantzia bermatzeko, botoak dira beharrezkoak. Eta bezain besteko boto lortzeko, badirudi alderdiek zentrorantz jo behar dutela, ahalik eta jende gehien berenganatzeko, ahalik eta mesfidantza gutxien sorrarazteko. Halaxe dio dotrinak. Baina zentrokoa izatea eta zentro politikoa izatea gaur

za ondo ezberdinak dira. Zentro politikoa, berak markatzen duen musikaren erritmorra beste guztiak dantzan jartzen dituen, alegia, momentu honetan ultraeskuma da.

Neoliberalismoak Keynesen liberalismoa eta horren asmo sozial onak –eta eztabaidagarriak– irentsi zituen bezala, ultraeskuma edo *alt-right* delakoa (*eskuma alternatiboa*, euren esanetan) eskuma “zibilizatua” (sic) irensten ari da. Eta, areago, pentsamolde berri oso bat ereiten. Garrantzitsua izan arren, funtsezkoenak ez dira siglak edo boterera heltzen diren ala ez, baizik eta iruditeriak eta kosmobisioak aldatzen ari direla. Jendartearen aldaketa eragiten ari dira, sistemaren aldaketa norabideratzeko.

Bien bitartean, historikoki errebel-dia, desobedientzia eta transgresioa gorpuztu zituztenak defentsiban daude, zuzentasun politikoan tematuta. Sumin soziala eskuma alternatibo berri hau kapitalizatzen hasi da. Harrigarria bada ere, eurak dira orain, itxuraz, behinik behin, “antisistema”.

Estatua mundu mailako joera betean dagoela esan dut hasieran. Pentsa genezake gure bazter honetan salbu edo, behintzat, aparte gaudela. Nahi duguna pentsa genezake, baita ez pentsatu ere. ●